

## Oarsoarrak Euskararen saria, Sorguneak ikertegiari

2012/12/03

Proiektuaren xedea izan da haurrentzako aisia egitarau hezitzaile euskaldun partehartzaile eta herritarra lantzea. Horretarako, "umeak heldu eta helduak umetu" izan da erabili den estrategia. Proiektu honek bere baitan bildu ditu transferentzia, aholkularitza eta eragiletza. Loreak eta Iñakik Andere Ormazabal Lankikoa izan dute aholkulari partehartze dinamiketan. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko ikasle batzuek ere parte hartu izan dute haurren partaidetza dinamizatzen.

Eskualdeko lau herrietako alkateak eta zinegotziak, udal teknikariak eta euskalgintzako eragileak elkartu ziren sari-emate ekitaldian. Gipuzkoako Foru Aldundiaren euskara zuzendari Zigor Etxeburua ere bertan izan zen.

Saria hartzera egitasmoaren lau zutabeak osatzen dituztenen ordezkariak igo ziren agertokira: Joxe Mari Agirretxe "Porrotx", Irrien lagunak elkartearen izenean; Lorea Agirre Mondragon Unibertsitatearen izenean; Nora Barroso, Oarsoaldeko herritarren izenean; eta Aiora Perez de San Roman, Oiartzungo alkatea eta Oarsoaldea Garapen Agentziako lehendakaria, erakunde publikoen izenean.

Ekitaldiak Pasaiako musika eskolako ikasle batzuen emanaldia izan zituen osagai, besteak beste.

